

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 20/2017 Foru Dekretua, apirilaren 4koa, aldatzen dituena nekazaritza, ingurumen eta klima laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, zeinak ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu baitziren, eta onartzen duena laguntza lerro horren 2017rako deialdia

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren nekazaritza-ingurumen eta klimarako laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, eta orobat laguntza lerro horren 2016rako deialdia. Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan ematekoak dira, 1305/2013 zenbakiko erregelamenduak ezarritako mugen barruan, eta M10 "Nekazaritza-ingurumen eta Klimako neurriak" eta M11 "Nekazaritza ekologikoko Neurriak" izenez identifikatzen dira.

Deialdi hori ebatzitakoan, beharrezko jotzen da oinarri arautzaileko zenbait alderdi zehaztea, haiek hobeto ulertu eta aplikatzeko.

Bestalde, urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena, 2016ko urriaren 2tik aurrera indarrean jarri izanak eta, bestetik, urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzena, 2016ko urriaren 29tik aurrera indarrean jarri izanak behartu egiten dute oinarri arau horiek aipatutako araudi berrira egokitzera, bai eta dirulaguntzen esparru araudira ere (Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen eta Azpiegituren Sailburutzak otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren bidez onartu zuen).

Azkenik, kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2017ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehena. Onartzea nekazaritza-ingurumen eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriak (M10 eta M11 identifikazio kodeak dagozkie, hurrenez hurren), ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren eranskinean ezarriak.

1.1. Aldatzea onuradunen betekizunak arautzen dituen 3. artikuluko 1.a), 2.b), 2.c) eta 2.e) paragrafoak, eta 2.g) paragrafoa gehitzea. Hona nola geratzen diren:

3.1.a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatutako nekazaritza ustiategi baten titularrak izatea.

3.2.b) Zerga egoitza eta egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan izatea.

Zerga egoitzaren ondorioetarako, baldintza hau bete dela ulertuko da zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan dagoenean eta gutxienez bazkideen ehuneko 50ek Arabako Lurralde Historikoan zerga egoitza izateaz gain Araban kokatuta dagoen sozietate horretako kapital sozialaren ehuneko 50eko partaidetza badute gutxienez.

3.2.c) Ustiategiko kideek 18 urte beteta izan beharko dituzte eta 65 urte bete gabe, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean. Betekizun hori betetzat joko da, zerga egoitzari

buruz artikulua honen 3.2.b) letran zehaztutako irizpidea betetzeaz gain, baldin eta bazkide guztien erdiek (ehuneko 50) sozietatearen kapitalaren gutxieneko ehuneko 50eko partaidetza izateko betekizuna betetzen badute.

3.2.e) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibiso mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira. Halaber, ezin dute honelako laguntzarik jaso makineria erabiltzeko kooperatibek (MEK).

3.2.g). Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorritik titulartasun konpartitua duten nekazaritzako ustiatuek sozietate zibilek duten tratamendua izango dute, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

1.2 Aldatzea 4. artikulua 2. paragrafoa, baldintza eta konpromiso orokorrak arautzen dituena. Hona nola geratzen den idatzita:

4.2 Laguntzaren hasierako eskaeran, eskaera zein azpineurrirako eskatu duen, hartarako behar diren konpromisoak sinatuko ditu. Konpromiso horiek 5 urte iraungo dute eta nekazaritza-ingurumeneko kontratutzat joko dira ondorio guztietarako, betiere hasierako laguntza-eskaeraren aldeko ebazpena eman bada. Konpromisoen denboraldia amaitutakoan, eta araudi egokiak eta aurrekontuak ahalbidetzen baldin badute, laguntza urtebetez luzatzeko eskaera egin ahalko da.

1.3. Aldatzea 6. artikulua 3. paragrafoa, arautzen dituena laguntza hauen gorabeherak ustiatuek eskualdatzak izaten direnean; hona nola geratzen den idatzita:

6.3 Konpromisoaren aldi onuradunak bere ustiatuek osorik edo zati batean beste pertsona bati eskualdatzen badiot, azken horrek konpromisoari eutsi ahalko dio betetzeke geratzen den aldi. Hartutako nekazaritza eta ingurumen konpromisoan etsiz gero, konpromisoa ezeztatuko da eta jasotako laguntzak Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkio, legezko interesekin batera, laguntzak jaso ziren momentutik aurrera kalkulaturik.

1.4 Aldatzea 9. artikulua 4. paragrafoa. Artikulu horretan murrizketak eta zehapenak arautzen dira, adierazitako azalaren eta animaliei buruzko neurrietan zehaztutako arteen desadostasunik egonez gero. Honela idatzita geratzen dira:

9.4 Aipatutako zehapenak ez dira aplikatuko baldin eta onuradunak ezin baditu bete onargarritasun irizpideak, konpromisoak edo beste betebeharrak batzuk, bere abere taldean eragina duten inguruabar naturalen ondorioz; hala ere, agintari eskudunei idatziz jakinarazi behar die, bere animalia kopurua murriztu dela jakin eta hurrengo hamar astegunetan. Kasu bakoitzean kontuan izan behar diren inguruabar zehatzak gorabehera, agintari eskudunek animalia taldearen bizitzako inguruabar natural gisa onartu ahalko dituzte ondoko hauek:

- Animalia bat gaixotasun baten ondorioz hiltzea, edo
- Animalia bat istripu baten ondorioz hiltzea, baldin eta onuraduna istripuaren arduraduna ez bada.

1.5. Aldatzea 14. artikulua, murrizketa, zehapen eta ukoen hurrenkera ezartzen duena. Honela geratzen da idatzita:

14. artikulua. Murrizketen, zehapenen eta ukoen ordena

Ez betetzeek murrizketen, zehapenen eta ukoen metaketa eraginez gero, horiek guztiak modu mailakatuan aplikatuko dira aurreko zenbategatik abiatuz eta honako ordena honen arabera:

- Neurritz gain adierazitakoarengatik egiten diren murrizketak eta zehapenak.
- Onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo betebeharrak batzuk ez betetzeagatik ukatzea.
- Eskaera epetik kanpo aurkezteagatik murrizketak.
- Ustiatuek azalera osoa ez adierazteagatik murrizketak.

– Laguntza kentzea onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo betebeharrak ez betetzeagatik.

– Zehapenak, baldintzekin zerikusia duten ez betetzeengatik.

– Zehapen gehigarriak neurritz gainera aitortzeengatik.

1.6. Aldatzea 15. artikuluan 4. paragrafoa, arautzen duena dirulaguntza eta haren zenbatekoak, eta eranstea 5. paragrafoa artikuluan horri. Hona nola geratzen den idatzita:

15.4 Ez da laguntzarik emango eskatutako zenbatekoa 300,00 eurotik beherakoa bada.

15.5 Pertsona fisiko titularra edo, pertsona juridikoen kasuan, bazkideak, bi ustiategitan edo gehiagotan inskribatuta egonez gero, dela bakarka, dela elkartutako ustiategi bateko bazkide moduan, laguntza hau ustiategi bakar batean konputatuko da, eta bazkide edo kiderik gehien duen ustiategi elkartua lehenetsiko da.

1.7. Aldatzea 17. artikuluan 1., 3. eta 5. paragrafoak, ezartzen dutenak zer agiri aurkeztu behar diren eskabidearekin batera. Hona nola geratzen diren idatzita:

17.1 Diru laguntza eskatzeko betekizunak, betekizun horiek egiaztatze modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, ondorengo 17.2 eta 17.3 artikuluetan aipatzen direnez gain, foru dekretu honetan azpinearri bakoitzerako ezarritakoak dira:

17.3 Eskatzailea pertsona juridikoak gizarte zibila edo ondasun erkidegoa bada, eratzeko estatutuen eta, egonez gero, horien aldaketan fotokopiak, Nekazaritza Ustiategien Erregistroan sartu ahal izateko.

17.5 Eskabideetan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, interesdunei eskatuko die eskabidean galdatutako betekizunen gainera akatsak zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak bidaltzeko, 10 egun baliorduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da ezen, eskatutakoa bete ezean, eskabidea ezetsiko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

1.8. Aldatzea 18. artikuluan 2. eta 4.3 paragrafoak (artikulu horrek izapidetzea arautzen du) eta ezabatzea 18. artikuluan horren 4. paragrafoa. Hona nola geratzen diren idatzita:

18.2 Espedientea izapidetzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hau betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

18.4. Labore bakardun udalerrak: labore bakar bat (belardiaz bestekoa) ENAren ehuneko 80 baino gehiago izateraino nagusi duten udalerrak diskriminatuko dira: 15 puntu.

1.9. Aldatzea 19. artikuluan 2. paragrafoa. Artikulu horrek laguntzen ebazpena eta jakinarazpena arautzen du, eta hona nola geratzen den idatzita:

19.2. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan xedatutakoa betetzeko, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori ofizioz luzatuko da hiru hilabetez, ez badira jaso kudeaketarako eta kontrolerako sistema integratuko gainerako neurrien ikuskapenen emaitzak (32.1 artikulua). Epe hori igaro eta ebazpen adierazirik eman edo jakinarazi ez bada, ulertuko da administrazio siltasuna ezestekoa dela, azaroaren 17ko 17 Lege Orokorrak, dirulaguntzei buruzkoak, 38/2003 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

1.10 Aldatzea 22. artikuluan 2. eta 5. paragrafoak. Artikulu horrek ebazpenaren aldaketa, ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea arautzen du. Hona nola geratzen diren idatzita:

22.2 Onuradunek betetzen ez badituzte hartutako konpromisoak edota foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Aldundiari itzuli behar diote, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Hori guztia ez da oztopo izango bidezko ekintzak aplikatzeko, otsailaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen eta transferentzienak, ezarritakoaren arabera.

22.5 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, aurreikusitako arau hausteengatik, zehapen prozedura abiarazi ahal izango da.

1.11 Aldatzea 23. artikulua, laguntzen araubide juridikoa ezartzen duena. Hona nola geratzen den idatzita:

23. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudian ezarritako dagoena bete behar dute, bai eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako xedapen aplikagarriak ere.

1.12 aldatzea 24.2 artikuluan ageri den koadroa. Artikulu horrek beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna arautzen du. Hona nola geratzen den idatzita:

NEURRIAK	10.1.1	10.1.3	10.1.4	10.1.5	10.1.7	11.1	11.2
10.1.1 Ekoizpen integratua				X	X	X	X
10.1.3 Bertako animalia arrazen kontserbazioa							
10.1.4 Biodibertsitatea hobetzeko erlezaintza							
10.1.5 Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa	X					X	X
10.1.7 Labore estentsiboak dibertsifikatzea nekazaritzako ekoizpen teknika jasagarrien pean	X					X	X
11.1 Nekazaritza ekologikora bihurtzea	X			X	X		X
11.2 Nekazaritza ekologikoa mantentzea	X			X	X	X	

X: lurzati berean bateraezinak diren jarduketak (bateraezintasunak soilik zehaztuko dira lurzatiaren erabilerak bi neurrien aplikazioa ahalbidetzen badu)

1.13 Berrantolatzea I. eranskinen 2.2 ataleko 2.1 paragrafoen idazketa, arautzen baitituzte M10.1 (Produktzio integratua) azpineurriari dagozkion konpromisoak eta konprometitutako eremuak; aldatzea A.1 idatz-zati horretako 3.1 eta 3.2 paragrafoak, arautzen baitituzte, azpineurri honi dagozkion onargarritasun baldintzen barruan, onuradunei eta lurzatiei dagozkien baldintzak; berrantolatzea A.1 ataleko 4. paragrafoaren idazketa, arautzen baitu ustiategi onuradunek bete behar dituzten gutxienezko arauak; eta aldatzea A.1 atal horretako 6. paragrafoa, ezartzen baitu azpineurri horretarako laguntzaren zenbatekoa. Hona nola geratzen diren idatzita:

A.1.2. Konpromiso espezifikokoak

A.1.2.1. Onuradunak

Onuradunak betebeharra izango du, nekazaritza eta ingurumen kontratuak indarrean dirauen epe osoan zehar, honako konpromiso hauek betetzeko:

- Konprometitutako azalerei eustea urtero-urtero.
- Bazterten duten konpromisoak:
 - a) Betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko produktio integratuari buruz indarrean dagoen araudia (31/2001 Dekretua, otsailaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko produktio

integratuari buruzkoa, beste honek aldatua: 259/2003 Dekretua, urriaren 21ekoa). Ekintza hori erabatekoa da produkzio baldintzei eta baldintza horiek betetzeko kontrol mekanismoei dago-kien guztian.

– b) Betetzea laguntza eskatzen den unean indarrean diren produkzio joera konprometituei buruzko arau tekniko orokorra eta arau tekniko espezifikoak.

A.1.2.2. Konprometitutako azalerak.

– Urtero-urtero, hasiera batean konprometitutako azalera handitzeko aukera izango da. Gehikuntza hori diruz lagundua bada, nekazaritza eta ingurumen kontratu sinatuaren iraupen epea amaitu artean eutsi beharko zaio azalera konprometitu berriari.

– Produkzio integratuko praktika agronomikoak atxikitzea labore jakin baterako baliatutako azalera guztian. Hala, bada, konpromisoa ez da aplikatzen lurzati finkoetan, baizik eta labore finkoetan.

– Nekazaritza eta ingurumen kontratuaren iraupen osoan zehar, zilegi izango dira gutxitze hauek azalera konprometitu gehienezkoan:

– Labore iraunkorretan, gehienezko gutxitzea ehuneko 10 izango da.

– Urteroko laboreetan, gehienezko gutxitzea ehuneko 10 izango da.

A.1.3. Onargarritasun baldintza espezifikoak

A.1.3.1. Onuradunak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio integratuko eragileen erregistroan izena emanda egotea, ekoizleen sailean, laguntza eskatzeko epea amaitutakoan (konpromiso baztertzaila da).

– Arau tekniko espezifiko batek arautzen dituen produkzio joeretako baten ekoizle izatea, ondoren aipatzen diren produkzio joera hauen artean:

- Mahatsondoa Arabako Errioxa eta Txakolina

- Erremolatxa

- Patata

- Ortuariak: uraza, tomatea, piperra eta zerba.

- Frutondoak: kiwia, sagarrondo.

- Esne behiak.

– Ustiatégian gutxienez azalera hau edukitzea: 1.000 m² ekoizpen integratuko barazkigintza-rako edo 5.000 m² ekoizpen integratuko laboretarako (konpromiso baztertzaila).

– Elkarte horiek legez eratuta egon behar dute.

A.1.3.2 Lurzatiak

– EAEko Ekoizpen Integratuko Operadoreen Erregistroan inskribatuta egotea (konpromiso baztertzaila da inskribatu gabeko azalaren kasuan).

– Mahatsondoaren kasuan, gainera, lurzatiek inskribatuta egon behar dute Arabako Txakolina jatorri deituraren edo Errioxa jatorri deituraren mahasti erregistroan, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere. (Konpromiso baztertzaila da inskribatu gabeko azalaren kasuan).

– Zurezko laboreen lurzatiek landaketa erregular homogeenok eduki behar dituzte; ez da onartuko lerrokatzerik ez txertaka isolaturik (konpromiso baztertzaila da betetzen ez duen azalaren kasuan).

– Laboreen lurzatiek laboreetan ereite erregular eta homogeenok eduki behar dituzte (konpromiso baztertzaila da betetzen ez duten azalaren kasuan).

Konpromiso horiek betetzen ez dituzten azalera edo dagozkien erregistroetan inskribatu gabe dauden barrutietan dauden azalera ez dira zenbatuko dirulaguntza kalkulatzeko azalera hautagarritzat. Azalera baztertu hori ez da joko neurritz gain aitortutako azalerratzat 10. artikulua aplikatzeari begira.

A.1.4 Gutxieneko arauak

Nekazaritza ustiategi onuradunek gutxieneko arau hauek bete behar dituzte (oinarrizko egoera):

– Baldintzetako nekazaritza eta ingurumen baldintza onei dagokienez:

- A) Ibai, aintzira eta urmaelen ertzetan, urertzetik bost metro zabal den zerrendan, ezin da erabili gai fitosanitariorik. Hala ere, tarte zabalagoa utzi beharko da baldin gai horien etiketan hala ezartzen bada.

- B) Ibai, aintzira eta urmaelen ertzetan, urertzetik aurrera, lur zerrenda batean ezin da erabili gai fitosanitariorik eta ez dago nekazaritzako ekoizpenik, dagoeneko jarrita dauden zurezko laboreak izan ezik. Zerrenda horien zabalera gutxienez 3 metrokoa izango da zaurgarritzat jotzen diren zonetan, eta metro batekoa gainerako zonetan.

– Ongarriak erabiltzeko gutxieneko betebeharrei dagokienez, EAeko zona ez zaurgarrietarako Nekazaritzako Jardunbide Onen Kodean ezarritakoak (112/2011 Dekretua; 116. EHAA, 2011-06-20koa).

– Fitosanitarioak erabiltzeko gutxieneko betekizunei dagokienez (1311/2012 Errege Dekretua; 223. EAO, 2012-09-15ekoa):

- A) Tratamendu fitosanitarioen erregistroa eguneratuta mantendu behar da.

- B) Ur masak eta edateko ura ez daitezen kutsatu behar diren neurri guztiak ezarriko dira.

- C) Produktu fitosanitarioak, ontziak eta hondarrak manipulatzeko eta biltegitatzeko beharrezkoak diren jarduerak errespetatuko dira.

A.1.5. Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza honetan, urteko prima bat ematen da ekoizpena bideratutako hektarea bakoitzeko, onartutako ekoizpen integratuko arauarekin. Hau da kopurua: Baratzezaintzak ustiategi batean 2 ha baino gehiago hartzen baditu, hori gaingiditzen duena azalera handiko baratzezaintza izango da.

“Negutegiko” produkzio joerari lotutako prima ordaintzeko, barrutiek plastikozko estalpeko baratzezaintzaren modalitatekotzat aitortuak behar dute izan, eta Nekazaritzako Lurzatiengueko Geografia Informazioko Sistemak (NLGIS) erabilerak negutegikoa izan beharko dute.

Diruz lagun daitekeen gehieneko azalera, ustiategiko, esne behi aziendaren produkzio joeran, 25 ha izango da.

LABOREA	SARIA EURO/HA
Erremolatxa	224
Hazitarako patata	253
Kontsumorako patata	223
Txakolin mahastiak	594
Arabar Errioxako mahastiak	281
Baratzeko produktu estentsiboak	265
Baratzezaintzako laborea	472
Berrotegia	1.064
Sagarrondoa	402
Kiwia	420
Esne behia	98

1.14 Aldatzea eta berrantolatzea I eranskineko A.2 idatz-zatiko 2.1. paragrafoaren idazketa, arautzen dituen "Tokiko animalia arrazak kontserbatzea" M10.13 azpineurriaren konpromiso espezifikoak, aldatzea 3.1 eta 4 paragrafoak, arautzen dituztenak, hurrenez hurren, ustiategi onuradunen onargarritasun baldintza espezifikoak eta aipatutako azpineurriko laguntzaren zenbatekoa. Hona nola geratzen den idatzita:

A.2.2 Konpromiso espezifikoak

A.2.2.1 Onuradunak

Onuradunak, nekazaritza eta ingurumeneko kontratua indarrean dagoen aldirian, konpromiso hauek bete beharko ditu:

– Eskatutako arraza mota bakoitzerako konprometitutako ALUen kopurua atxikitzea urtero-urtero.

– Baztertzen duten konpromisoak:

– A) Arraza Hobetzeko Programa betetzea, zeina ofizialki onartu baita ekainaren 2ko 81/2015 Dekretuak, euskal arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzekoak eta animalia arrazak sustatzen dituzten entitateak arautzekoak, ezarritakoarekin bat etorritik.

– B) Arraza egokiko azienda larriko unitateen (ALU) gutxieneko kopuru hau konprometitzea (ALUetara bihurtzea egingo da 1305/2013 (EB) Erregelamendua Betetzeko Egintzen 9. artikuluan eta II. eranskinean ezarritakoaren arabera):

– 2 ALU arraza guztietarako, hegaztiak izan ezik.

– ALU 1 hegaztietarako.

– Konpromiso nagusiak:

– Ustiategian ez gairiditzea 2 ALU/ha abere zama urtean, batez beste. Abere zamarako konpromisoa ezin zaie aplikatu Euskal Oiloa, Euskal Antzara eta Euskal Txerria arrazei, ezta Enkarterriko Astoaren lehenengo 8 ALUei ere.

A.2.3. Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

A.2.3.1 Onuradun ustiategiak:

– Arraza egokien elkarreterako kide izatea eta 2015-2020ko LGPan jasotako arrazetako animalia edukitzea (Konpromiso baztertzaila).

A.2.4 Laguntzaren kopurua

Laguntza honetan, ALU bakoitzeko urteko prima bat emango da, eta ganadu mota eta arrazaren arabera kalkulatu da, kontuan izanik nola egin behar den ALUra bihurtzea II. eranskinean jasotako taularen, kopuru hauetan:

		PRIMA EURO/ALU
BEHIAK	Terreña	200
AHUNTZAK ARDIAK	Azpi Gorria Sasi Ardia	156
ZALDIAK	Pottoka Enkarterriko astoa	200
	Euskal Herriko basazaldia	151
HEGAZTIAK	Euskal Antzara	200
	Euskal Oiloa	200
TXERRIAK	Euskal Txerria	200

Ordainketarako determinatutako ALU kopurua izango da Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuan erregistratuta egonik arrazaren Liburu Genealogikoan ere erregistratuta dauden ALUen kopurua. ALU kopuru determinatu gabea neurritz gain aitortutako ALUak direla joko da 9. artikuluaen aplikazioaren ondorioetarako.

1.15 Aldatzea eta berrantolatzea I eranskineko A.3 idatz-zatiko 2.1. paragrafoaren idazketa, arautzen dituena "Biodibertsitatea hobetzeko erlezaintza" M10.14 azpineurriaren onuradunen konpromiso espezifikoak, aldatzea A.3 idatz-zatiko 3.1, 3.4 eta 3.5 paragrafoak, arautzen dituztenak, hurrenez hurren, pertsona onuradunen onargarritasun baldintza espezifikoak eta aipatutako azpineurriko laguntzaren zenbatekoa. Hona nola geratzen diren idatzita:

A.3.2 Konpromiso espezifikoak

A.3.2.1 Onuradunak

Onuradunak, laguntza indarrean dagoen aldian, konpromiso hauek bete beharko ditu:

- Konprometitutako erlauntzak urtero mantentzea.
- Bazterten duten konpromisoak:
 - A) Erlauntza bakoitzak ez du izango 80 erlauntza baino gehiago, salbu eta negu pasan eta/edo beste lurralde batzuetara aldatzean.
 - B) Urtero ustiatze plan bat aurkeztu beharko du, erlauntzak mugitzeko aurreikuspenak barne hartzen dituena (egonaldia; trantsumantzia plana, egokia bada; kokaguneak).
- Oinarrizko konpromisoak:
 - Gehienez ere erlauntzen ehuneko 80k egin ahalko dute transhumantzia Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo.
- Konpromiso nagusiak:
 - A) Kokalekuen, mugimenduen eta tratamenduen oharpenak eguneratuta izango ditu.
 - B) Erlauntzak urtean 6 hilabete jarraian, behintzat, egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko leku berean kokatuta, urtarriletik urrira arteko hilabeteetan, bi hilabete horiek barne.

A.3.3 Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

A.3.3.1 Onuradunen betebeharrak:

- Erle ustiategien titular izan behar dute, Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan inskribatuak, eta erregistratuta eduki behar dituzte erregistro horretan gutxienez 80 erlauntza (konpromiso baztergarria).
- Erlezaintzaren antolamenduari buruzko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuan ezartzen diren baldintzak bete behar dituzte (konpromiso baztergarria).
- Barroasiaren eta hari lotutako gaixotasunen aurkako borroka sistema bat aplikatzea, Abeltzaintza Zerbitzu egokiak agindutakoaren arabera (konpromiso baztergarria).
- Erlezaintzako elkarte bateko kide izatea edo kanpo aholkularitza teknikoak izatea (konpromiso baztergarria).
- Ezti bereziko erlauntzak edukiz gero (labela edo erlezaintza ekologikoa), kalitate bereizgarri horiek dauzkala frogatu beharko da.

A.3.4 Laguntzaren kopurua

Laguntza urteko prima bat da, erleek nektarra biltzeko erabiltzen duten hektarea bakoitzeko, kontuan izanik erlauntz batek nektarra biltzeko 2 hektarea dauzkala, kopuru hauetan:

	PRIMA EURO/HA
Ezti normala	10,5
Ezti berezia	12,5

Ezti berezia izango da ekoizpen ekologikoaren arauekin ekoizten dena edo "Euskal Eztia – Miel del País Vasco" markaren arautegiaren arabera egiten dena, Eusko Label bereizgarriarekin.

A.3.5 Dokumentazio espezifikoa

Laguntza eskaerari, 17. artikuluan aipatzen den dokumentazio orokorraz gain, ondokoak erantsi beharko zaizkio:

– Erlezaintzako elkarteko kide izatearen edo kanpo aholkularitza teknikoaren edukitzearen ziurtagiria.

– Urteko ustiapen plana, erlauntzak non kokatuta dauden zehazten duena (koordinatuak), eta haiek nola mugituko diren batetik bestera azaltzea, egonaldiak eta transhumantzia plana zehaztuz.

– Erlezainaren fitxa edo erlezaintzako ustiapen dokumentua (ustiapen koaderno), jasoko duena non egongo diren kokatuta erlauntzak eta baita ere denboraldian zehar egin diren mugimenduak eta tratamenduak.

1.16 Aldatzea eta berrantolatzea I eranskineko A.4 idatz-zatiko 2.1. paragrafoaren idazketa, arautzen dituen "Mendi larreen aprobetxamenduaren kudeaketa" M10.1.5. azpineurriaren onuradunen konpromiso espezifikoa, aldatzea idatz-zati horretako 3.1 eta 4.5 paragrafoak, arautzen dituztenak, hurrenez hurren, pertsona onuradunen onargarritasun baldintza espezifikoa eta aipatutako azpineurri horretan aurkeztu beharreko dokumentazio espezifikoa.

A.4.2 Konpromisoak

A.4.2.1 Onuradunak

Onuradunek, laguntzaren nekazaritza eta ingurumeneko kontratua indarrean dagoen aldian, konpromiso hauek bete beharko dituzte:

– Konprometitutako azalerei eustea urtero-urtero.

– Baztertzen duten konpromisoak:

– A) Artzantzan aritzea konpromisoaren objektu diren titularitate publikoko lursailetan, halakotzat joz abereak denboran zehar ohikotasunez zaindu eta artatzea mendi larreak erabiltzeko balio duten garaietan.

– B) Larre horien aprobetxamendu tasen ordainketan eguneratuta egotea.

– C) Konpromiso aldian konprometitutako azalaren ehuneko 10ean gutxienez laboreak egitea. Labore horiek urtero adierazi behar dira, jarduketa plan baten bitartez, eta mendiaren jabea den erakundeak baimendu behar ditu.

– D) Larreen kudeaketa plan bat izatea eta betetzea. Larreen kudeaketa planak baldintza hauek bete behar ditu:

• Gutxienez hamabost eguneko indarraldia izatea.

• Lurren titularrak diren erakundeek onartu behar dute eta Arabako Lurralde Historikoko Mendien Kudeaketa Organoak haren aldeko txostena egin behar du.

• Larreen Kudeaketa Plana dagokion zona osorik edo zati batean Natura 2000 Sareko espazio bat bada, Arabako Lurralde Historikoan sare horren kudeaketaren arduraduna den organoari jakinaraziko zaio.

• Larre iraunkorren erabilera egokia bermatzeko, benetako abere zama 0,2 ALU/ha edo handiagoa eta ALU 1/ha baino txikiagoa izango da (Oinarrizko konpromisoa). Bestela, benetako abere zama ez bada maila egokietara iristen, ezinbestekoa izango da mantentze lan egokia egitea, larre iraunkorra ez degradatzeko eta sastrakek larrea ez inbaditzeko moduan.

• Gutxienez eduki hauek sartu behar dira:

– Bazkatzeko zonen kokalekuaren mapa, eskala egokian.

– Bazkatzeko azalera osoaren ebaluazioa.

– Abere zama onargarriaren definizioa.

- Animaliak, zein espezieetakoak diren, larreratzeko sarrera eta irteera egutegia.
- Planaren indarraldian urtero egin beharreko jarduketan plangintza.
- Larreen Kudeaketa Planak ukitutako zona Natura 2000 Sareko espazio bat osorik edo zati batean hartzen badu, espazio horretan kontserbatu behar diren eta plan horren eragina jasan dezaketen elementuen gaineko informazio xehea erantsiko da (habitatak eta espezieak).
- Betebehar hauek sartuko dira:
 - Sua ez erabiltzea.
 - Birbasotutako eta birsortutako eremuak errespetatzea.
 - Kontserbatzeko interesgarriak diren fauna eta flora errespetatuko ditu.
 - Horma, harrizko artegi, borda eta artzaintza jardueran ohikoak diren beste elementu batzuk mantenduko ditu.
 - Neguan atsedenaldirik bat aurreikustea, larreetako habitatak lehengoratzeko eta animalien osasun kontrola egiteko, administrazio organo eskudunek berariazko baimena eman ezean.

A.4.3. Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

A.4.3.1 Onuradunak:

Baztertzen duten konpromisoak:

- A) Laguntzaren xede diren lurrak erabiltzeko baimenduta egon behar dira.
- B) Neurri hau eskatu ahal duten eremuak erabilera publikoko mendietan eta erabilera libreko mendietan dauden lursail publikoak dira.
- C) Erabilera publikoko mendi edo erabilera libreko mendi bereko adjudikaziodun guztiek neurri hau erabili behar dute.

B.4.4 Dokumentazio espezifikoa

Laboretarako laguntzaren kasuan soilik, eta laguntza ordaindu baino lehen, urtero-urtero aurkeztu beharko da jardun plan bat eta egindako inbertsioaren ziurtagiriak. Lan horiek norbere bitartekoekin egitea onartuko da, onuradunaren adierazpen arduratsuen bitartez, eta Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuan jasotako moduluekin bat etorritik. Foru dekretu horrek, EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren esparruan, Basoko Laguntzen Planaren oinarri arautzaileak eta 2016. urterako deialdia onartu zituen.

1.17 l. eranskinaren B.1 idatz-zatiaren 3.1, 3.2 eta 4 paragrafoak aldatzea, zeinek, hurrenez hurren, onuradunen eta konprometitutako azalaren onargarritasun baldintzak arautzen baitituzte, bai eta M11.1 "Nekazaritza ekologikora bihurtzea" azpineurriaren laguntzaren zenbatekoa ere. Hona nola geratzen den idatzita:

B.1.3 Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

B.1.3.1 Onuradunak

- Nekazari aktiboak izatea, 1307/2013 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua adieran (Konpromiso baztertzaila).
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotea laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunean (konpromiso baztertzaila).
- Ustategian gutxienez azalera hau edukitzea: Ortuarien 1.000 m²ko labore ekologikoak edo 5.000 m²ko labore ekologikoak (Konpromiso baztertzaila).

B.1.3.2 Konprometitutako azalera:

- Laguntza jasotzen duen azalera nekazaritzako azalera izan behar da, 1305/2013 Arautegiaren (EB) 2.1.f) artikulua definitzen duenez.
- Lurzatiak ENEEKen kontrol sisteman egon behar dira inskribatuta, "Bihurtzen" sailkapenarekin, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko. Urteko laboreen kasuan, laguntza eskatzen den labore zikloaren hasieratik egon behar dira izena emanda. (Konpromiso baztertzaila da inskribatu gabeko azalretarako).

– Gainera, ardogintzarako mahastiaren kasuan, lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deiturako mahastien erregistroan edo Errioxa jatorri deiturako mahastien erregistroan izena emanda egon behar dira, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere. (Konpromiso baztertzaila da inskribatu gabeko azaleretarako).

– Zurezko laboreen lurzatiek landaketa erregular homogeenok eduki behar dituzte; ez da onartuko lerrokatzerik ez txertaka isolaturik (konpromiso baztertzaila da betetzen ez duen azaleran).

– Laboreen lurzatiek laboreetan ereite erregular eta homogeenok eduki behar dituzte (konpromiso baztertzaila da betetzen ez duten azaleretan).

– Ez zaie laguntzarik emango ‘zuhaixkak dituzten larreei’, ‘zuhaitzak dituzten larreei’ ez ‘larretarako mendiei’.

– Ez zaie laguntzarik emango abeltzaintzek partekatzen dituzten herri larreetan dauden larreei.

Konpromiso horiek betetzen ez dituzten azalera edo dagozkien erregistroetan inskribatu gabe dauden barrutietan dauden azalera ez dira zenbatuko dirulaguntza kalkulatzeko azalera hautagarritzat. Azalera baztertu hori ez da joko neurriz gain aitortutako azalera 10. artikulua aplikatzeari begira.

B.1.4 Laguntzen zenbatekoa

Laguntza nekazaritzarako azalera hektarea bakoitzeko urtero ematen den prima bat da, nekazaritza ekologikora bihurtzen diren labore taldeen arabera, taula hau kontuan izanik. Estali gabeko baratzezaintzak ustiategi batean 2 ha baino gehiago hartzen baditu, hori gainditzen duen azalera labore handiko baratzezaintza izango da.

“Negutegiko” produkzio joerari lotutako saria ordaintzeko, barrutiek plastikozko estalpeko baratzezaintzaren modalitatekotzat aitortuak behar dute izan, eta Nekazaritzako Lurzati Geo-grafia Informazioko Sistemak (NLGIS) erabilerak negutegikoa izan beharko du.

LABORE TALDEAK	SARIA EURO/HA	AZIENDA	PRIMARI EGOTZI BEHARREKO OINARRIA, ABERE EKOIZPENEN HA BAKOITZEKO (EURO / ALU)
Lugorria / ongarri berdea	121	Hegazti hazkuntza, haragitarako	109
Zereal alea	244	Hegazti hazkuntza, arrautzatarako	75
Bazkak eta proteaginosak*	190	Ahutzak	63
Aletarako lekadunak	311	Ardiak, haragitarako	56
Kontsumoko patata	420	Ardiak, esnetarako	63
Hazitarako patata	482	Zaldiak, haragitarako	32
Industria laboreak	246	Behi esneak	117
Belardi polifita	193	Zaldiak	29
Labore handiko Baratzezaintza	496	Txerriak	137
Estali gabeko baratzezaintza	1284		
Negutegiko baratzezaintza	2013		
Fruitu lehorrak	448		
Baratzezaintza	900		
Olibazaintza	300		
JDko ardozaintza eta mahastizaintza Arabako Txakolina	900		
JDko ardozaintza eta mahastizaintza Errioxa	514		

Abereen ALU bakoitzeko primen batura, ekologikoan, azalera osoaren oinarrizko kopuruari gehituko zaio, modu proportzionalan. Ganaduko prima hau gehienez 2 ALU izango da aipatutako hektarea bakoitzeko. Modu berean, batuketa egindakoan, egiaztatuko da ha bakoitzeko ordainketak ez duela gainditzen hektarea bakoitzeko ezarritako gehienekoa.

1.18 l. eranskinaren B.2 idatz-zatiaren 3.1, 3.2 eta 4 paragrafoak aldatzea, zeinek, hurrenez hurren, onuradunen eta konprometitutako azaleren onargarritasun baldintzak arautzen baitituzte, bai eta M11.2- "Nekazaritza ekologikora bihurtzea" azpineurriaren laguntzaren zenbatekoa. Hona nola geratzen den idatzita:

B.2.3 Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

B.2.3.1 Onuradunak:

– Nekazari aktiboak izatea, 1307/2013 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua adieran (Konpromiso baztertzalea).

– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotea laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunean (konpromiso baztertzalea).

– Ustiatégian gutxienez azalera hau edukitzea: Ortuarien 1.000 m²ko labore ekologikoak edo 5.000 m²ko labore ekologikoak (Konpromiso baztergarria).

B.2.3.2 Azalerenak

– Azalera nekazaritzakoa izan behar da, 1305/2013 Arautegiaren (EB) 2.1.f) artikulua definitzen duenez.

– Lurzatiak ENEEKen kontrol sisteman egon behar dira inskribatuta, "Ekologikoa" sailkapenarekin, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko. Urteko laboreen kasuan, laguntza eskatzen den labore zikloaren hasieratik egon behar dira izena emanda (konpromiso baztergarria inskribatu gabeko azalerarako).

– Gainera, ardogintzarako mahastiaren kasuan, lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deiturako mahastien erregistroan edo Errioxa jatorri deiturako mahastien erregistroan izena emanda egon behar dira, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere (konpromiso baztertzalea inskribatu gabeko azalerarako).

– Zurezko laboreen lurzatiek landaketa erregular homogeneoak eduki behar dituzte; ez da onartuko lerrokatzerik ez txertaka isolaturik (konpromiso baztertzalea da betetzen ez duen azalaren kasuan).

– Laboreen lurzatiek laboreetan ereite erregular eta homogeneoak eduki behar dituzte (konpromiso baztertzalea da betetzen ez duten azalaretan).

– Ez zaie laguntzarik emango 'zuhaixkak dituzten larreei', 'zuhaitzak dituzten larreei' ez 'larretarako mendiei'.

– Ez zaie laguntzarik emango abeltzaintzek partekatzen dituzten herri larreetan dauden larreei.

Konpromiso horiek betetzen ez dituzten azalera edo dagozkien erregistroetan inskribatu gabe dauden barrutietan dauden azalera ez dira zenbatuko dirulaguntza kalkulatzeko azalera hautagarritzat. Azalera baztertu hori ez da joko neurritz gain aitortutako azalera 10. artikulua aplikatzeari begira.

B.2.4 Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza, berez, nekazaritzarako azalera hektarea bakoitzeko urtero ematen den prima bat da, nekazaritza ekologikoko labore taldeen arabera, taula hau kontuan izanik. Estali gabeko baratzezaintzak ustiatégia batean 2 ha baino gehiago hartzen baditu, hori gainditzen duen azalera labore handiko baratzezaintza izango da.

“Negutegiko” produkzio joerari lotutako saria ordaintzeko, barrutiek plastikozko estalpeko baratzezaintzaren modalitatekotzat aitortuak behar dute izan, eta Nekazaritzako Lurzatien Geografia Informazioko Sistemaren erabilerak (NLGIS) negutegikoa izan beharko du.

LABORE TALDEA	PRIMA EURO/HA	AZIENDA	PRIMARI EGOTZI BEHARREKO OINARRIA, ABERE EKOIZPENEN HA BAKOITZEKO (EURO / ALU)
Lugorria / ongarri berdea	121	Hegazti hazkuntza, haragitarako	93
Zereal alea	222	Hegazti hazkuntza, arrautzatarako	69
Bazkak eta proteaginosak	168	Ahutzak	56
Aletarako lekadunak	253	Ardiak, haragitarako	51
Kontsumoko patata	348	Ardiak, esnetarako	56
Hazitarako patata	361	Zaldiak, haragitarako	26
Industria laboreak	224	Behi esneak	103
Belardi polifita	193	Zaldiak	26
Labore handiko Baratzezaintza	388	Txerriak	127
Estali gabeko baratzezaintza	923		
Negutegiko baratzezaintza	1561		
Fruitu lehorrak	372		
Baratzezaintza	900		
Olibazaintza	229		
JDko ardozaintza eta mahastizaintza Arabako Txakolina	900		
JDko ardozaintza eta mahastizaintza Errioxa	440		

Abereen ALU bakoitzeko primen batura, ekologikoan, azalera osoaren oinarrizko kopuruari gehituko zaio, modu proportzionalan. Ganaduko prima hau gehienez 2 ALU izango da aipatutako hektarea bakoitzeko. Modu berean, batuketa egindakoan, egiaztatuko da ha bakoitzeko ordainketak ez duela gainditzen hektarea bakoitzeko ezarritako gehienekoa.

Bigarrena. 2017ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

- Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako neurria (M10):
- Ekoizpen integratua, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.1 azpineurria).
- Bertako animalien arrazak kontserbatzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.3 azpineurria).
- Biodibertsitatea hobetzeko erlezaintza, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.4 azpineurria).
- Mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.5 azpineurria).
- Nekazaritza ekologikoko neurria (M11):
- Nekazaritza ekologikora bihurtzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.1 azpineurria).
- Nekazaritza ekologikoa mantentzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.2 azpineurria).

– Epea eta lekua: laguntza eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren eskualdeko nekazaritza bulegoren batean aurkeztuko dira, eskaera bakarra aurkezteko ezarri den epean (2017ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne). Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren nekazaritzako eskualde bulegoetako edozeinetan aurkeztuko da, hargatik eragotzi gabe 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoa.

Ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba: 800.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2017rako gastu aurrekontuetako 40.1.01.42.01.479.00.03 “Nekazaritza eta Ingurumen Neurriak” izeneko partidaren kontura.

Esandako kreditua zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, 11/2016 Foru Arauak, urriaren 19koak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita ere aurrekontu partidaren edozein arrazoirengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez. Zenbateko gehigarri horiek hasiera batean erreserbatu denaren gehieneko zenbateko bera edukiko dute.

– Nekazaritza ustiategi bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 2017ko deialdi honetan begira 18.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko, eskatutako neurriak gorabehera. M10.1.3 “Bertako arrazen kontserbazioa” azpineurrirako laguntzak arraza bat baino gehiagotarako eskatuz gero, gehieneko kopurua gehitu ahal izango da, honela:

– 2.000,00 euroraino, eskatzen den bigarren arrazako animalientzat.

– Aurrekoz gain, beste 1.000,00 euro, eskatzen den hirugarren animalientzat.

Hirugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurtsio guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2017ko apirilaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE